



TRIKITI-IRAKASGAIKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA • xehetasunetarako, galdetu musika-eskolan

HELBURU OROKORRAK

- Inguruko musika-kulturaren eskakizun zabalari erantzun.
- Arautu gabeko irakaskuntza musikal praktikoa eskaini.
- Ikaslearen partaidetza bultzatu bere inguruan.
- Beharrezkoak diren alde teorikoak eman ekintza musikala hobeto ulertzeko.
- Zerbitzu hau ahal den gehienei zabaldu (haur, gazte, heldu eta zahar).
- Ekintza musikalaren esparru zabala eskaini (folk, herri-doinuak, bertakoak...).
- Jende-aurreko emanaldiak bultzatu, honetara ohitzea, musika komunikazio-bide bezala erabiliz.

II. A MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Eskusoinua behar bezala jotzeko gorputza zein beso eta eskuen jarrera egokia lortzea.
- Hatz, beso, beso-hauspoaren independentzia, koordinazioa eta lotura psikomotorea lortzea.
- Hasierako oinarrizko erreperitorio bat interpretatu.
- Hatzen eta hauspoaren mugimenduen bitartez soinuaren ekoizpena eta kalitatea kontrolatu.

II. B MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Aurreko mailako helburuak finkatu.
- Eskusoinuaren ezaugarri eta posibilitate gehiago ezagutzea.
- Oinarrizko erreperitorioa lantzea.

II. C MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Aurreko mailako helburuak finkatu.
- Koordinazioa gehiago landu.
- Erreperitorioa handitu, abestietan ariketa ezberdinak landuz.
- Kalejiretan parte hartzen hastea.

II. D MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Aurreko mailako helburuak finkatu.
- Soinu-kalitatea hobetu, interpretazio egoki bat lortuz.
- Erreperitorioa zabaldu, zailtasuna areagotuz abestietan.

II. E MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Aurreko mailako helburuak finkatu.
- Hatzen eta hauspoaren mugimenduen bitartez, soinuaren ekoizpena eta kalitatea kontrolatu.
- Erreperitorioa handitu, estilo ezberdinetako abesti gehiago sartuz (nazioarteko folka).



II. MAILAKO EDUKIAK

KONTZEPTUAK:

- Trikitixaren atalak ezagutu.
- Tresna hartzeko postura ikasi.
- Eskuen kokapena (eskubikoa/ezkerrekoa) ikasi.
- Hauspoaren mugimendua nolakoa izan behar den ikasi.
- Oinarrizko erreperitorioaren ezagutza.

PROZEDURA:

- Ariketa praktikoko batzuk egingo dira hatzen bizkortasuna lortzeko.
- Lehenengo abestietan beti ikasiko dira gauza berriak.

METODOLOGIA:

- Zenbakien *konbinaketa* metodoa erabiliko dugu.

MUSIKATZESKOLA

TOBERA



TRIKITI-IRAKASGAIKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA • xehetasunetarako, galdetu musika-eskolan

HELBURU OROKORRAK

- Inguruko musika-kulturaren eskakizun zabalari erantzun.
- Arautu gabeko irakaskuntza musikal praktikoa eskaini.
- Ikaslearen partaidetza bultzatu bere inguruan.
- Beharrezkoak diren alde teorikoak eman ekintza musikala hobeto ulertzeko.
- Zerbitzu hau ahal den gehienei zabaldu (haur, gazte, heldu eta zahar).
- Ekintza musikalaren esparru zabala eskaini (folk, herri-doinuak, bertakoak...).
- Jende-aurreko emanaldiak bultzatu, honetara ohitzea, musika komunikazio-bide bezala erabiliz.

III. A MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Eskusoinuaren kokapen zehatza gorputzarekiko.
- Koordinazio eta lotura psikomotore orokorra hobetu.
- Errepertorio zabalagoa interpretatu.
- Hatzen eta hauspoaren mugimenduen bitartez soinuaren ekoizpena eta kalitatea hobetu.

III. B MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Aurreko mailako helburuak finkatu.
- Eskusoinuaren ezaugarri eta posibilitate gehiago ezagutzea.
- Errepertorioa handitzean, tonalitate ezberdinak lantzea.

III. C MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Aurreko mailako helburuak finkatu.
- Koordinazioa gehiago landu, ariketa zehatzak erabiliz.
- Errepertorioa handitu, abestietan ariketa ezberdinak landuz.
- Talde-lanean hasi, beste musika-tresna batzuekin.

III. D MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Aurreko mailako helburuak finkatu.
- Soinu-kalitatea hobetu abesti-estilo ezberdinekin, interpretazio egoki bat lortuz.
- Behatzen azkartasuna eta dijitazioa hobetu.
- Errepertorioa zabaldu, zailtasuna areagotuz abestietan eta estilo ezberdinetako abesti gehiago sartzen hasiz (nazioarteko folka).



III. MAILAKO EDUKIAK

KONTZEPTUAK:

- Trikitixaren aukera ezberdinak aztertu.
- Tresna hartzeko postura perfektionatu.
- Eskuen kokapena hobetu, teknika hobetzearren.
- Abestiak tonuz aldatzen ikasi.
- Aurrez aurre ikasten hasi.
- Musika-hizkuntzaren edo solfeoaren metodoarekin lotzen hasi ordura arte ikasitakoa, guztiari logika bat emanez.
- Bikote lana landu.
- Belarriz abestiak atera.

PROZEDURA:

- Ikasleak abestia aurrez aurre ikasi ahal izateko irakasleak zati bat joko luke eta ondoren ikasleak.
- Trikitixa eta panderoarekin bikotea osatuz hasiko lirateke bikote-lana lantzen.
- Irakasleak abesti bat grabatu eta ikaslea hori belarriz ikasten saiatuko da.

METODOLOGIA:

- Zenbakien *kombinaketa* metodoa erabiliko dugu.
- Solfeoko metodoa erabiliko dugu.
- Aurrez aurreko metodoa erabiliko dugu.